

2018an, industriaren negozio-zifrak % 6,8 egin zuen gora Euskal AEn

Enpleguak % 1,4 egin zuen gora, eta, hala, azken lau urteotan izandako goranzko joera jarraituari eutsi dio

Euskal AEko industriaren negozio-zifraren zenbateko garbiak % 6,8 egin zuen gora 2018an, Eustatek prestatutako datuen arabera. Hala, aurreko urteko igoera berretsi du -% 5,4-, eta haren bolumenak, dagoeneko, 60 mila milioi euro baino handiagoak dira, azken hamar urteotako erregistrorik onena, eta, hala, 2018an markatutako 66 mila milioi euroko gehienekora hurbildu da.

Industria-sektoreko negozio-zifraren zenbateko garbiaren igoera hornikuntzen gastuen gorakada batek (% 7,9) oztopatu zuen eta, hala, 2018an balio erantsiaren hazkuntza % 4,4ra murriztu zen. Hala, bada, igoera hori 2017an izandakoa baino handiagoa da, bi puntu baino gehiagokoa (% 2,0); hala, 2014an hasitako erregistro positiboen seriea luzatu da eta, negozio-zifrarekin gertatzen den bezala, bere kopurua, aurreko hamarkadako handiena da.

Urteotan joera nabarmen positiboa izan duen industriaren beste adierazle bat okupatuaren kopurua da, beste hazkuntza bat egon dela aintzat hartuta (% 1,4koa kasu honetan); beraz, industrian 206.349 enplegatu izan ziren, guztira.

Aldi berean, Euskal AEko industriaren produktibitatea, pertsona okupatu bakoitzeko balio erantsi gisa neurtuta, 73.100 €-koa izan zen 2018an, aurreko urtean baino % 3 handiagoa.

Euskal AEko industriaren aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera. Uneko prezioak. Mila €. 2018

	C.A. de Euskadi	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Landunkopurua UN	206.349	42.992	81.250	82.107
Negoio zifraren zenbatekoa guztira	60.308.597	14.068.418	27.169.407	19.070.772
Hornikuntzak	37.659.464	9.182.453	17.694.694	10.782.317
Kanpoko zerbitzuak	7.910.137	1.757.209	3.157.048	2.995.880
Pertsonal gastuak	9.101.441	1.920.739	3.528.228	3.652.474
Balio erantsi gordina faktore-kostuetan	15.084.027	3.347.531	5.975.691	5.760.805
Egindako inbertsioa	1.997.266	389.508	868.290	739.468

Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

Industriaren barruan, manufaktura-industriak, langile okupatuaren % 95,5, negozio-zifraren % 88,3 eta guztizkoaren balio erantsiaren % 86,9 hartzen duenak, bilakaera positiboa izan zuen 2018an; langile okupatuaren % 1,5eko eta balio erantsiaren % 3,7ko hazkuntzak izan zituen eta, bereziki, negozio-zifran izan zuen bilakaera positiboa, % 7,6koa.

Euskal AEko manufaktura-industrian pisu gehien duten sektoreek –*Metalurgia eta Produktu Metalikoak, Makinak eta Ekipoa eta Garraio-materiala*– oso modu positiboan egin zuten aurrera. Hiruren artean, industriako langileen erdiari baino gehiagori eman zioten enplegua (% 57,3), eta 2018an guztizko balio erantsiaren % 57,3ren arduradun ere badira. Nabarmenezkoa da *Garraio-materialaren* sektorearen bilakaera; % 7,6 egin du gora bere balio erantsiak, % 5,4 negozioen zifrak eta % 8,7 aurreko urtearen aldean okupatutako langileriak. Antzeko bilakaera ikusten da *Metalurgiaren eta Produktu metalikoen* sektorean; bertan, enpleguaren % 0,9 gehiagorekin bakarrik, balio erantsiaren % 4 gehiago eskuratu du,

eta % 6,5 gehiago salmentetan. Bestalde, pisu handieneko hirugarren sektorean –*Makinak eta Ekipoa*–, enpleguak % 2 egin zuen gora, balio erantsian % 2,1 eta negozioen zifran % 7,1.

Euskal AEko industriaren beste sektore garrantzitsu bat, haren balio erantsiagatik, *Energia Elektrizitatea, Gasa eta Lurruna* sektorea da. Sektore horretan, ia enplegu berarekin (-% 0,1), % 12 hazi da balio erantsia eta % 1,1 salmentak.

Negozio-zifra dela eta, gorakada gehien izan zuen adarra *Kokeak eta petrolioak fintzen* izan zen, % 26,6 eta % 0,5 gehiago enpleguan. Salmentetan izan den gorakada hori ez da balio erantsian islatzen; izan ere, hornikuntzen igoera handienak ahultzen du eta, hala, balio erantsiak % 7,6 egin du behera.


Jarduera sekzioak. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila €. 2018

	Langile okupatuak	Negozio zifra	Pertsonal gastuak	Balio erantsi gordina faktore-kostuetan
Industria eta Energia	206.349	60.308.597	9.101.441	15.084.027
Erauzteko industriak	459	195.411	23.694	38.498
Manufaktura industria	196.967	53.246.751	8.618.454	13.100.867
Energia elektrikoa, gasa, lurruna	2.359	5.749.903	188.664	1.432.635
Ur hornidura, saneamendu jarduerak	6.564	1.116.532	270.629	512.027

Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

Euskal AEko manufaktura-industriaren enpresek atzerriko merkatuetara erabat zabalik daudela erakutsi zuten. Atzerriko esportazioa 2018an manufaktura-industriaren salmenten % 44,5 izan zen, 2017koaren hamarren bat gutxiago baino ez. Salmenta guztietatik, % 28,8ren helmuga Europar Batasuna izan zen; Munduko besteek, % 15,7.

Manufaktura-industriaren salmenten norakoa. Euskal AE. Uneko prezioak (mila € eta %). 2018




Bestalde, Estatuko besteei eginiko salmenten pisuak, salmenten guztizkoaren gainean, ehuneko 0,5 puntu egin zuen gora 2017aren aldean, eta salmenta guztien % 31,6 izan zen, 2018an. Azkenik, barne-merkatuak (Euskal AE) saldutako guztizkoaren % 23,9 hartu zuen, 2017an estatuko merkatuak jasan zuen beherakada ia berdina.

Sektoreen arabera, *Garraio-materialak*, esportazioaren ehuneko handieneko adarrak, 1,3 hamarren bat handitu du atzerriko salmenten ehunekoa salmenten guztizkoaren gainean; % 78,7 lortu zuen 2018an. *Makinak eta ekipoa* sektoreak % 59,1 esportaziora bideratu zuen 2018an, aurreko urtean baino zortzi hamarren gehiago. Ordea, *Metalurgia eta produktu metalikoak* bigarren sektore garrantzitsua da bolumen esportatzailearen arabera, eta esportazioen pisua ehuneko 1,1 puntu murriztu zuen, salmenten guztizkoaren gainean.

Produktibitatea dela eta, produktibitate handieneko adarrak honako hauek izan ziren: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (607 mila euro pertsonako) eta *Kokeak eta petrolioaren fintzen* (327 mila euro pertsonako); lehenengoak % 12ko hazkuntza izan zuen eta bigarrenak, % 8,2koa murrizketa. Horiez gainera, *Farmazia Produktuak* nabarmendu zen (164 mila euro pertsonako) eta *Industria kimikoa* (97 mila euro pertsonako). Beste aldean, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (37 mila euro) eta *Altxariak eta beste enbriak* (45 mila euro) sektoreak daude. Industria eta energiaren guztizkoaren batez bestekoa 73.100 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 3 gehiago.

Produktibitatea sektoreka. Euskal AE. Uneko prezioak (mila €). 2018



Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

Lurraldeen arabera, hiru lurraldeek izan zituzten zifra positiboak aldagai nagusien martxan. Araban eta Gipuzkoan, industria-langileek % 2 eta % 2,7 egin zuten gora, hurrenez hurren, baina, Bizkaian, enpleguak berdin dirau, -% 0,2ko beherakada txikiarekin baino ez. Hazkuntza horiek handiagoak dira salmenten eta balio erantsiaren aldagaietan, batik bat Gipuzkoan eta Bizkaian; salmentek % 8,5 egin zuten gora lehenengoan, eta % 7,4 bigarrean, eta balio erantsiak % 6,8 Gipuzkoan eta % 3,6 Bizkaian. Araba, nahiz eta emaitza positiboak izan, ez da beste bi lurraldeen etara iristen; % 3,3 egin du gora salmentetan eta % 2 balio erantsian.

Industriako enpleguaren bilakaera: susperraldi iraunkorra

Aurretik esan bezala, industriako enpleguak % 1,4 egin zuen gora 2018an. Hala ere, 2008aren eta 2018aren artean, Euskal AEko industriak 42.881 enplegu galdu ditu, alegia hasierako kopuruaren aldean % 17,2 gutxiago. Hala ere, bi aldi bereizten dira garbi: lehena, 2008aren eta 2013aren artean; bertan, guztira ia 57 mila enpleguen galerak metatzen dira, eta bigarrena, 2014aren eta 2018aren artean, aurretik galdutako enpleguen 14 mila berreskuratzen diren bosturtekoa. Bigarren aldi horretako urteko irabazi iraunkorren gehienekoa 2017an izan zen, % 2,7ko hazkundera izan baitzen.

Lehenegoratu horren buru, zehazki, krisialdiaren lehen urteetan enplegu gehien galdu zuten industria-sektoreak dira. Hala, *Garraio-materiala* eta *Metalurgia eta produktu metalurgikoak* sektoreak, azken bost urteetan ia lau mila enplegu gehiagorekin bakoitza, berreskuratutako enpleguaren erdia baino gehiagoren eragile dira.

Era berean, nabarmenak dira bost urte horietan *Kautxua, plastikoak eta metalikoak ez diren beste industria batzuk*, *Altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk* eta *Produktu informatikoen eta elektronikoaren fabrikazioa* sektoreek lortutako irabaziaz; horiek guztiek mila enplegu baino gehiagoko saldo positiboa izan dute, zehazki azken horrek, % 18,7ko gorakada erlatiboa markatzen baitu 2014tik.

Hiru adarrek baino ez dute amaitzen azken leheneratze-aldi hau balio negatiboekin: *Materiala eta ekipa elektrikoa eta Zura, papera eta arte grafikoak*; baita *Kokeak eta petrolioa fintzen* ere, baina zenbateko minimoarekin.

Sektorearen araberrako enpleguaren banaketa dela eta, Euskal AEko industriak kontzentrazio argiari eutsi zion sektore gutxi batzuetan. *Oinarrizko metalen eta produktu metalikoen fabrikazioa* sektorearen nagusitasuna agerikoa da; izan ere, hiru enplegutik bat hartzen du (% 33,7). Horri *Makinak eta ekipoa* eta *Garraio-materiala* gehitzen bazaizkio, lehenak guztizko pertsonalaren % 11ekin eta bigarrena % 10ekin, lasai gainditzen da industriak sortzen duen enplegu guztiaren erdia (% 54,7).

Guztizko enpleguaren % 5 eta % 10 bitarteko pisuak dituzte honako sektore hauek: *Kautxua eta plastikoak* (% 9,3), *Elikagai-, edari- eta tabako-industriak* (% 7,4), *Altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk* (% 6,9) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 5,6).

Gainerako beste bederatzi sektoreek enplegua duten langile guztien % 16 metatzen dute. Enpleguagatik garrantzia gutxieneakoak honako hauek izango lirateke: *Kokeak eta petrolioa fintzen* (% 0,5), *Farmazia Produktuak* (% 03) eta *Erauzketa-industriak* (% 0,2).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62